

dira oraindik eta, esate baterako, Funcasek 2013rako %26,7an kokatu du langabezia tasa, eta enpleguaren narriadura, berriz, %-3,1ean, lanaldi osoko lanpostu baliokidetan neurtuta.

HIRUHILABETEKAKO AURREIKUSPENAK ESPAINIARENTZAT (2013ko otsaila)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2013-I	2013-II	2013-III	2013-IV	2013	2014
BPG	-2,4	-1,8	-1,3	-0,3	-1,5	0,9
Kontsumo pribatua	-3,7	-2,8	-2,5	-0,7	-2,5	0,1
Kontsumo publikoa	-4,1	-4,7	-3,2	-3,0	-3,8	-0,6
Kap. finkoaren eraketa gordina	-9,4	-7,9	-7,6	-6,5	-7,9	-1,3
- Inbertsioa ekipamenduan	-7,7	-6,5	-7,0	-5,6	-6,7	-1,0
- Inbertsioa landutako aktib.	-7,6	-6,1	-5,2	-2,0	-5,3	3,5
- Inbertsioa eraikuntzan	-11,2	-9,5	-9,0	-8,0	-9,5	-2,0
Barne eskaria	-5,3	-4,7	-4,3	-2,7	-4,3	-0,6
Esportazioak	3,3	3,0	2,8	3,6	3,2	4,9
Inportazioak	-5,3	-4,7	-4,5	-2,3	-4,2	1,7

Iturria: CEPREDE.

EAEko aurreikuspenak

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak EAEko ekonomiaren taula makroekonomikoa berrikusi du 2013. urterako eta lehen aldiz 2014ko lehen sei hilekoarako hazkunde aurreikuspenak argitaratu ditu. Gaurkotze lan horretan, EAEko kontu ekonomikoen aldaketa metodologikoak kontuan hartu ditu. Informazio berriak seinalatzen du EAEko ekonomia 2013. urtean %1,1 murriztuko dela, hots, aurreko txostenean iragartzen zen tasa bera estimatu da oraingoan. 2014ko lehen sei hilekoari dagokionez, EAEko ekonomiaren batez besteko hazkunde tasa puntu erdi positibo bat izango zen. Aurreikusi den epealdi guztirako hiruhilekako bilakaerak geldotasuna iragartzen du 2013ko lehen hilekoetan eta harez geroztik susperraldi arin baina etengabea hasiko da. Lehen hazkunde tasa positiboak 2014ko lehen hilekoetan lortuko dira.

Barne eskariak ahultasun garbia erakutsiko du 2013an eta 2014ko lehen bi hiruhilekoetan zehar. Hobekuntza arina izango du, baina zeinu negatiboa etengabea izango da BPGaren hazkundeari eginiko ekarpenean. Kontsumo pribatua %1,0aren inguruan jaitsiko da aurreikuspen horretan eta zertxobait haziko da 2014ko urtariletik ekainera bitartean.

Zeharkako zergen 2012ko igoerak, enpleguaren narriadurak eta errenta gordinaren soldaten osagaiak izan duen ondorengo murrizketak, eta higiezinaren aberastasun errealearen jaitsierak kontsumoa jaitsaraziko dute ondorengo hilekoetan. Beste aldetik, finantza aberastasun garbiaren suspertzeak, interes tasak maila apaletan jarraitzeak eta inflazioan eskariaren aldetiko tentsiorik ez egoteak, neurri batean, familien kontsumorako aurreikusten den jaitsiera konpentsatuko dute.

EAE-KO EKONOMIAREN ZAKO AURREIKUSPENAK (2013ko martxoa)

Urte arteko aldakuntza tasak	2013.I	2013.II	2013.III	2013.IV	2013	2014.I	2014.II
BPG	-1,8	-1,6	-0,9	-0,4	-1,1	0,3	0,7
Azken kontsumoa	-1,8	-1,4	-1,0	-0,5	-1,2	-0,1	0,3
Kontsumo pribatua	-1,4	-1,1	-0,8	-0,2	-0,9	0,3	0,8
Kontsumo publikoa	-2,9	-2,4	-2,0	-1,7	-2,2	-1,6	-1,4
Kapital eraketa gordina	-5,3	-4,7	-4,4	-3,2	-4,4	-1,8	-0,6
Barne eskariaren ekarpena	-2,7	-2,2	-1,9	-1,2	-2,0	-0,6	0,0
Kanpo saldoaren ekarpena	0,9	0,7	1,0	0,9	0,9	0,9	0,7
Lehen arloa	1,2	-5,3	11,9	23,7	7,9	24,8	10,3
Industria	-2,9	-2,6	-1,7	-0,7	-1,9	0,9	1,3
Eraikuntza	-6,2	-5,4	-4,2	-3,7	-4,9	-3,5	-2,0
Zerbitzuak	-0,8	-0,6	-0,4	-0,1	-0,5	0,3	0,6
Balio erantsi gordina	-1,8	-1,7	-1,1	-0,6	-1,3	0,3	0,6
Ekoizkinen g. zerga garbiak	-1,2	-1,1	-0,6	-0,1	-0,7	0,4	1,2
BPGren deflatoarea	1,4	1,3	1,8	1,7	1,6	1,6	1,5
Enplegua	-3,0	-2,5	-2,0	-1,6	-2,2	-1,2	-0,9
Langabezia tasa	13,3	13,7	13,6	13,2	13,5	13,0	12,7

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.


Kontsumo publikoari dagokionez, adierazle guztiek seinalatzen dute kontu publikoak egokitzeko aurretik geratzen diren ahaleginak oraindik tamaina handikoak direla. Izan ere, administrazio publikoen neurriek gastu publikoaren aldakuntza tasa %-2,2ra eramango dute termino errealetan 2013an. Kontsumo publikoaren murrizketak, erritmo apalagoan bada ere, 2013ko lehen seihilekoan ere jarraituko du. Enpresen inbertsioak ere aldaketa bat ezagutuko du kontuan hartu den epealdian zehar. Aldagai horren bilakaeran, inflexio gunea 2013ko lehen hilekoetan gauzatuko da. Aurten, barne eskariaren ahultasunak eta kreditu merkatuaren zurruntasunak aldagai hori baldintzatuko dute. 2013. urtean, batez besteko jaitsiera %4,4

izango da. 2014. urtean, berriz, barne eskariaren susperraldiak kapital eraketa gordinaren hedapena lagunduko du.

Aurreikusi den denboraldi osoan, EAEko ekonomiaren hazkundera kanpo arloaren ekarpen positiboari esker gertatuko da. Esportazioek bizitasuna erakutsiko dute munduko ekonomia garatuko den heinean, lehiakortasunaren hobekuntzengatik eta kanpoko merkatu berriekin ezarriko dituen merkataritza harremanci esker. Inportazioak, berriz, 2013an gutxituko dira, barne eskariaren narriaduraren ondorioz. Kanpoan eginiko erosketak 2014. urtean hasiko dira areagotzen, barne eskaria suspertzen denean.

EAEko BPGaren eta enpleguaren bilakaera

Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: Eustat eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Eskaintzaren ikuspegitik, arlo guztiek, lehenak izan ezik, ekarpen negatiboa egingo dioten EAEko balio erantsi gordinaren hazkundeari 2013an, eta 2014ko lehen hilekoetan hasiko da ekarpen hori positiboa izaten, salbuespena eraikuntza izango delarik. Industriak suspertzeko norabidea marraztuko du, barne zein kanpo eskariak hobetuko diren heinean areagotuko dena. Urteko batez bestean, industriaren aldakuntza tasa %-1,9 izango da 2013. urtean eta %1,0aren ingurukoa 2014ko lehen erdian. Eraikuntza, berriz, aurreikuspen epealdi osoan zehar hazkunde tasa negatiboak jasoko duen sektore bakarra izango da. Arlo horretako balio erantsi gordina %4,9 jaitsiko da 2013an eta bere jarduerak behera egingo du oraindik 2014ko lehen sei hilekoetan, nahiz eta moteltzeko joera garbia erakutsiko duen. Eskariaren ikuspegitik gertatzen ari den doikuntza begi bistakoa da eta, esate baterako, hasitako etxebizitzaren kopurua nabarmen

gutxitu da eta sektorearen enpleguak narriadura sakona pairatu du. Baina, beste aldetik, saldu gabeko etxebizitza berrien stocka gutxitu da eta horrek adierazten du bizitegien arloko desoreka konpontzetik hurbilago dagoela. Zerbitzuek beherakada apalduko dute kontuan hartu den denbora tartean zehar eta urte arteko aldakuntza tasa $-0,5$ ean egongo da 2013. urtean eta $0,5$ ean, berriz, 2014ko lehen sei hilekoan.

Lan merkatuaren berariazko aldagaien berrikuspenak beheranzko zuzenketa bat ekarri du aurreko hiruhilekoan argitaratu ziren datuen aldean. Hain zuzen ere, enplegua $-2,2$ murriztuko da 2013. urtean eta tasa negatiboa 2014ko lehen hilekoetan ere jarraituko dute, balio absolutuan txikiagoak izango diren arren. Aldakuntza ehuneko horiek enplegu galera garrantzitsua ekarriko dute aurreikuspenaren denboraldi osoan. Langabezia tasa $13,5$ era igoko dela 2013an aurreikusten da, eta 2014ko lehen sei hilekoan zuzenketa txiki bat gertatuko da, $12,9$ an kokatu arte.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak aurkeztu duen eszenategi makroekonomiko honen atzean, oinarritzko hipotesi batzuk daude munduko ekonomiaren bilakaeraz, euroak dolarraren aldean izango duen truke tasaz eta Europako Banku Zentralak epe laburrean ezarriko duen interes tasaz.

EBZk ezarriko duen diruaren prezio ofizialak $0,75$ ean jarraituko du eta datozen hilekoetan maila horretan segituko duela aurreikusten da. Euroguneak ustez biziko duen hobekuntzak egonkortasuna emango dio interes tasari eta gorakada txiki bat eragingo duela 2014. urtean zehar. Moneta agintaritzaren politika hori bat dator Eurogunerako aurreikusten diren inflazio igurikimenekin, $2,0$ aren azpian egongo baitira aurreikuspen honetan kontuan hartu den epealdi osoan.

Euroak dolarraren aldean balioa galduko duela aurreikusten da. Europako dirua ahul egongo da ekonomia krisiak bere horretan jarraituko duen bitartean eta Europako finantza arloan ziurgabetasuna egongo den bitartean. Hala ere, Eurogunea apurtuko den beldurra baretu izanak aurreko eszenategian iradokitzen zena baino indar gehiago eman dio euroari.